

# IRAKURKETA OHITURA



**Ikasleak:** María Acha, Iratze Orosa,  
Antxon Urruzuno eta Andoni Di Rago

**Irakaslea:** Blanca García

**Kategoria:** DBH1. eta 2.

**Zentroa:** IES Aixerrota

**Ikasturtea:** 2021/22

## **LABURPENA:**

Txosten honetan gure institutuko gazteen irakurketa ohitura zelako egoeran dagoen aztertu nahi izan dugu. Horretarako, galdetegi bat sortu genuen eta erantzun horiek aztertu ondoren, institutuan dagoen egoeraren inguruan ondorio batzuk atera ditugu. Gazteen artean irakurketa ohitura galtzen ari da eta zerbait egin behar dugu hau gelditzeko, guztion eskuetan dago. Irakurtzea oso garrantzitsua da gure bizitzan, irakurtzen jakiteak eta hiztegi-maila nahiko altua izateak eguneroko bizitzan irakurtzen duguna ulertzeko gai egiten gaituelako. Jaso ditugun erantzunen arabera ikus daiteke teknologiaren erabilera dela gure institutuko ikasleen irakurketa ohituraren jaitsieraren arrazoia.

# **AURKIBIDEA**

|                                |    |
|--------------------------------|----|
| <b>SARRERA ETA HELBURUAK:</b>  | 4  |
| <b>MATERIALA ETA METODOAK:</b> | 5  |
| <b>DATUEN ANALISIA:</b>        | 6  |
| <b>ONDORIOAK:</b>              | 25 |
| <b>HOBEKUNTZAK:</b>            | 26 |
| <b>INKESTA:</b>                | 27 |

## **SARRERA ETA HELBURUAK:**

Konturatu gara gazteek orokorrean gero eta gutxiago irakurtzen dutela. Beraz, gure institutuan egoera berdina gertatzen den frogatu nahi izan dugu. Gainera, inkesta honen bidez, gazteak gutxiago irakurtzera bultzatzen dituzten arrazoiak zeintzuk diren jakin nahi ditugu. Horrela, ikus dezakegu zer egin ahalko genuke irakurketa ohitura hori gazteen artean handitzeko. Askotan entzuten da irakurtzeko gogoak kentzen duen arrazoi nagusienetariko bat teknologiaren erabilera dela. Hori dela eta, jakin nahi genuen ea gazteen arteko irakurketaren jaitsiera eta teknologiaren erabilera erlazionatuta dauden.

Bestalde, gure ustez, beste arrazoi bat egon daiteke ohitura hori murrizten duena. Agian institutuak ezarritako irakurketa derrigorrezkoei eskaini behar diegun denbora, gure aisialdian irakurtzeko denbora kentzen digu. Hortaz, hori baieztatzea edo ezeztatzea ere dugu helburu.

## **MATERIALA ETA METODOAK:**

Lehenik, Google forms bat diseinatu genuen eta bidali genuen institutu guztira. Egun bat pasatu ondoren erantzun nahiko genituen jada, 128 erantzun zehazki, baina horietako batzuk ez genituen kontuan eduki txantxetan eginda zeudelako. Hori ikusita, galdetegia itxi genuen, erantzun nahiko genituelako. Azkenik, datu guztiak kalkulu-orri batera pasatu genituen. Han, analisisia hasi genuen non maiztasun taulak, parametro batzuk eta diagramak sortu genituen. Horri esker, aldagaiak deskribatu genituen guztiari ondorioak ateraz eta gure hipotesiak eta helburuak baieztatuz edo ezeztatuz.


## DATUEN ANALISIA:

Lehenengo galdera: Zein da zure adina?

Lehenengo grafikoan gure institutuko ikasleen adina adierazi dugu, adin bakoitzeko zenbat pertsona erantzun duten jakiteko.

| Adina |     |         |       |     |
|-------|-----|---------|-------|-----|
| xi    | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 12    | 20  | 16,13%  | 240   | 20  |
| 13    | 29  | 23,39%  | 377   | 49  |
| 14    | 19  | 15,32%  | 266   | 68  |
| 15    | 18  | 14,52%  | 270   | 86  |
| 16    | 19  | 15,32%  | 304   | 105 |
| 17    | 16  | 12,90%  | 272   | 121 |
| 18    | 1   | 0,81%   | 18    | 122 |
| 19    | 2   | 1,61%   | 38    | 124 |
| N     | 124 | 100,00% | 14,40 | 14  |

Adina




Grafikoan ikusi daitekenez adin guztietako jende kopuru berak erantzun digu, %15 gutxi gora behera, 18 eta 19 urte dituztenek izan ezik. 13 urte dituztenak izan dira gehien erantzun dutenak, 29 pertsona. Erantzun dutenen pertsonen adina aztertzeko maiztasun taula bat ere sortu dugu. 18 urte baino gehiago dituzten pertsonak adierazteko 19 urterekin adierazi ditugu batz bestekoa eta mediana ateratzea posible izateko. Hemen ikus daiteke adinaren arabera zenbat pertsona erantzun duten eta kopuru hori ehuneko moduan. Horretaz gain, batz bestekoa (14,40) eta mediana (14) kalkulatu ditugu ia alde handia dagoen beraien artean ikusteko, horrela zein den proposagoa ikus dezakegu.

### Bigarren galdera: Zein da zure generoa?

Bigarren grafikoan gure laginaren generoa adierazi dugu. Hemen, zenbat neska, mutil eta beste genero bateko pertsona erantzun gaituzten ikusi daiteke.


| Generoa   |     |         |       |
|-----------|-----|---------|-------|
| xi        | fi  | hi      | Mo    |
| Neska     | 68  | 54,84%  |       |
| Mutila    | 55  | 44,35%  |       |
| Beste bat | 1   | 0,81%   |       |
| N         | 124 | 100,00% | Neska |

### Generoa



Ikus daitekenez neska gehiago erantzun dute beste generoekin alderatuta. Baina mutil nahikok ere erantzun dute, beraz ondorioak ateratzeko gai gara. Maiztasun absolutua eta erlatiboa adierazten duen maiztasun taula bat sortu dugu ere. Maiztasun erlatiboa ehuneko moduan adierazi dugu, argiago geratzeko. Moda ateratzeko, gehiago errepikatzen den baloreari erreparatu diogu, eta argi ikusten denez, neskak dira.

## Generoa eta adina




Aurreko bi grafikoak egin ostean, haiek biak elkartzea grafiko berri bat sortzen erabaki dugu. Grafiko berri honetan zenbat mutilek, neskek eta beste genero bateko pertsonen erantzun diguten adin-talde bakoitzeko ikus daiteke.

## Hirugarren galdera: Zein mailatan zaude?

Hurrengo grafikoa egiteko bigarren galdera berriz ere hartu dugu kontuan. Horrela zenbat pertsona joaten den maila bakoitzera generoaren arabera jakin dezakegu.

| Maila  |     |         |       |
|--------|-----|---------|-------|
| xi     | fi  | hi      | Mo    |
| DBH 1  | 22  | 17,74%  |       |
| DBH 2  | 36  | 29,03%  |       |
| DBH 3  | 18  | 14,52%  |       |
| DBH 4  | 14  | 11,29%  |       |
| BATX 1 | 21  | 16,94%  |       |
| BATX 2 | 13  | 10,48%  |       |
| N      | 124 | 100,00% | DBH 2 |

### Generoa eta maila




Grafikoan ikus daiteke neska gehiago erantzun dutela maila gehienetan, baina mutil kopuru altua ere dagoela. Bigarren DBH-ko ikasleak izan dira erantzun gehien bidali dituztenak. Beste generoren bateko pertsona bakarra erantzun izan arren, laginean parte hartzea erabaki izan dugu, institutuan azaltzen diren beste errealitateak adierazi nahi izan ditugulako. Baina egia da ondorioak ez direla bat ere ez adierazgarriak izango. Maiztasun taula bat ere sortu dugu, jasotako erantzunen arabera, ikasleen maila adierazteko. Maiztasun absolutua eta erlatiboa adierazi ditugu, biak beharrezkoak direla iruditu zaigulako. Maiztasun absolutuarekin kopuruak ondo ikus daitezke baina agian ez da hain argi geratzen. Beraz, maiztasun erlatiboa ehuneko moduan jartzean, argiago ikus daiteke. Moda ere atera dugu, balore kualitatiboa delako, eta kasu honetan DBH2 da.

## Laugarren galdera: Zenbat liburu irakurtzen dituzu hilabetero?

Laugarren galdera egiterakoan institutuko ikasleek zenbat liburu irakurtzen dituzten hilabeteko, gutxi gora behera, jakin izan nahi dugu.

| Liburu kopurua<br>hilabetero |     |         |       |     |
|------------------------------|-----|---------|-------|-----|
| xi                           | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 0                            | 39  | 31,45%  | 0     | 39  |
| 1                            | 37  | 29,84%  | 37    | 76  |
| 2                            | 17  | 13,71%  | 34    | 93  |
| 3                            | 15  | 12,10%  | 45    | 108 |
| 4                            | 8   | 6,45%   | 32    | 116 |
| 5                            | 8   | 6,45%   | 40    | 124 |
| N                            | 124 | 100,00% | 1,52  | 1   |

## Zenbat liburu irakurtzen dituzu hilabetero?




Grafikoan ikusi daitekenez ikasle gehienek 0 edo liburu bakar bat irakurtzen dute hilabetero. Libururik irakurtzen ez dutenak 39 pertsona dira eta liburu bakarra irakurtzen dituztenak 37 pertsona dira. Baina badaude ere asko irakurtzen dituzten pertsonak. 8 pertsonak adierazi dute lau liburu hilabetero irakurtzen dituztela, eta beste 8 pertsonak bost liburu edo gehiago. Maiztasun taula hau ere sortu dugu bataz bestekoa eta mediana atera ahal izateko. 5 liburu edo gehiago irakurtzen dituztela adierazteko 5-arekin bakarrik adierazi dugu zenbaki bat bakarrik izatea beharrezkoa delako bataz bestekoa edo mediana ateratzeko momentuan. Irakurritako liburuen bataz bestekoa 1,52 liburu dira eta mediana liburu 1.

**Bostgarren galdera:** Irakurketa derrigorrezkoak bakarrik irakurtzen dituzu?

Hurrengo grafikoak institutuko gazteek eskolak bidalitako irakurketa derrigorrezkoak bakarrik irakurtzen dituzten ala ez adierazten du.

| Irakurketa derrigorrezkoak |     |         |    |
|----------------------------|-----|---------|----|
| xi                         | fi  | hi      | Mo |
| Bai                        | 47  | 37,90%  |    |
| Ez                         | 77  | 62,10%  |    |
| N                          | 124 | 100,00% | Ez |

### Irakurketa derrigorrezkoak



Grafikoak adierazten duen moduan %62 baino gehiagok ez dituzte eskolak bidalitako irakurketa derrigorrezkoak bakarrik irakurtzen, beraien aisialdietan ere irakurtzen dutela baizik. Baina nahiko altua da irakurketaz beraien denbora librean gozatzen ez duten pertsonen kopurua, ia %38 ez du eskolaz kanpo irakurtzen. Maiztasun taula ere sortu dugu. Honetan ikus daiteke zenbat pertsonak irakurketa derrigorrezkoak bakarrik irakurtzen dituzten edo ez eta argi geratzen da gehiengoa ezetz erantzun duela. Hala ere, nahiko handia da irakurketa eskola eremuan bakarrik egiten duten ikasleen kopurua.


Pertsona gehiago direnez eskolaz kanpo ere irakurtzen dituztenak irakurtzen ez dituztenak baino, irakurketa derrigorrezkoak ez dituztela bakarrik irakurtzen da moda.

## Seigarren galdera: Zein liburu generoak irakurtzen dituzu gehien?

Grafiko honetan ikasleek gehien irakurtzen dituzten liburu generoak adierazten dira. Aukera bat baino gehiago hautatzeko aukera izan dute.

| Liburu generoak           |     |         |               |
|---------------------------|-----|---------|---------------|
| xi                        | fi  | hi      | Mo            |
| Abenturazkoak             | 76  | 24,68%  |               |
| Zientzia fikziozkoak      | 50  | 16,23%  |               |
| Maitasunezkoak            | 48  | 15,58%  |               |
| Beste generoren batezkoak | 43  | 13,96%  |               |
| Akziozkoak                | 40  | 12,99%  |               |
| Beldurrezkoak             | 21  | 6,82%   |               |
| Mangakoak                 | 15  | 4,87%   |               |
| Biografiak                | 15  | 4,87%   |               |
| N                         | 308 | 100,00% | Abenturazkoak |

Liburu generoak




Grafikoan ikusten denez, abenturazko generoa da, gazteen artean, irakurtzeko ohikoena. 76 pertsonen esan dute abenturazko liburuak irakurtzea gustatzen zaizkiela. Zientzia fikziozko eta maitasunezko liburuak ere nahiko irakurtzen dituzte, 50 eta 48. Beldurrezko, mangako eta biografiako liburuak aldiz, ez dira hain ospetsuak beraien liburu apaletan. Beldurrezkoak 21 pertsonen hautatu dute eta mangakoak eta biografikoak 15 bakarrik. Galdera honetan erantzun bat baino gehiago hautatu ahal zen, hortaz, maiztasun taula honetan beste taula gehienetan baino erantzun gehiago ditugu. 124 erantzun izan beharrean 308 ditugu. Abenturazko liburuak irakurtzen duten liburu genero ohikoena denez, abenturazkoak moda dira.

## Zazpigarren galdera: Zenbat egun irakurtzen duzu astero?

Grafiko honetan adin tarte bakoitzeko jendea zenbat egun astero irakurtzen duten adierazten da.

| Irakurketa egunak astero |     |         |       |     |
|--------------------------|-----|---------|-------|-----|
| xi                       | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 0                        | 38  | 30,65%  | 0     | 38  |
| 1                        | 18  | 14,52%  | 18    | 56  |
| 2                        | 12  | 9,68%   | 24    | 68  |
| 3                        | 10  | 8,06%   | 30    | 78  |
| 4                        | 11  | 8,87%   | 44    | 89  |
| 5                        | 14  | 11,29%  | 70    | 103 |
| 6                        | 4   | 3,23%   | 24    | 107 |
| 7                        | 17  | 13,71%  | 119   | 124 |
| N                        | 124 | 100,00% | 2,65  | 2   |

## Zenbat egun irakurtzen duzu astero?



Adin tarte guztietan jende gehienak ez du egun bat ere ez irakurtzen astero, %30 erantzun dute hori. Baina deigarria da 13 urteko tartean gertatzen dena. Adin tarte horretan, tarte bakarra da non gehiengoak egun bat irakurtzen duen astero. Hala eta guztiz ere egun bakarra irakurtzea astero ez da irakurketa ohitura handia izatea. Orokorrean, adin tarte guztiak kontuan hartuta, 18 pertsonak erantzun dute egun bakar bat irakurtzen dutela astero, ia zazpi egun irakurtzen dituzten pertsonen antzekoa (17). Azken datu hau deigarria da, orokorrean gero eta egun gutxiago irakurtzen dutela erantzun dutelako, baina gero pertsona nahikoek erantzun dute


asteko zazpi egunetan irakurtzen dutela. Irakurketa egunen batz bestekoa institutuko ikasleen artean 2,65 egun dira eta mediana 2 egun.

**Zortzigarren galdera:** Liburu gutxi irakurtzen dituzula erantzun baduzu, zergatik da?

Galdera hau egun gutxi irakurtzen duten pertsonentzat zuzenduta zegoen. Beraz, ez dugu jaso erantzun duten pertsona guztien erantzuna. Arrazoi bat baino gehiago aukeratu ahal zen.

| Ez irakurtzeko zergatiak                                   |     |         |                        |
|------------------------------------------------------------|-----|---------|------------------------|
| xi                                                         | fi  | hi      | Mo                     |
| Ez zaidalako gustatzen                                     | 45  | 21,74%  |                        |
| Familiarekin egoteagatik                                   | 38  | 18,36%  |                        |
| Kirola edo beste eskolaz kanpo jardueraren bat egiteagatik | 36  | 17,39%  |                        |
| Teknologia erabiltzeagatik                                 | 33  | 15,94%  |                        |
| Beste ekintzaren bat egiteagatik                           | 30  | 14,49%  |                        |
| Lagunekin egoteagatik                                      | 25  | 12,08%  |                        |
| N                                                          | 207 | 100,00% | Ez zaidalako gustatzen |

Ez irakurtzeko zergatiak




Grafikoan argi ikusten denez jendeak ez irakurtzeko arrazoi nagusia gustatu ez izatea da, beraz, moda, hau izango zen. 45 pertsonak arrazoi hori eman dute. Alabaina, beste arrazoi garrantzitsu batzuk daude, adibidez, familia edo lagunekin egotea, kirola edo beste ekintzaren bat egitea ala teknologia erabiltzea. Maiztasun taula honetarako jasotako erantzunak, beste taulentzako baino erantzun gehiago jaso ditugu aukera bat baino gehiago hautatu ahal zelako. 124 erantzun izan beharrean 207 jaso ditugu.

## Bederatzigarren galdera: Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?

Grafiko honetan gure ikasleek zein hizkuntzatan irakurtzea nahiago duten adierazten da. Hizkuntza bat baino gehiago aukeratu izan dituzte gazteek.

| Liburuen hizkuntza |     |         |             |
|--------------------|-----|---------|-------------|
| xi                 | fi  | hi      | Mo          |
| Gaztelaniaz        | 114 | 57,58%  |             |
| Ingelesez          | 36  | 18,18%  |             |
| Euskaraz           | 38  | 19,19%  |             |
| Beste batean       | 10  | 5,05%   |             |
| N                  | 198 | 100,00% | Gaztelaniaz |

### Liburuen hizkuntza



Grafikoak oso argi adierazten duenez gaztelaniaz irakurtzea da ikasleen lehenengo aukera, %58k adierazi dute gaztelaniaz maiz irakurtzen dutela. Euskaraz eta ingelesez irakurtzen duten pertsonen kopurua nahiko berdinduta dago, %18 ingelesez eta %19 euskaraz. Harritu gaituen beste gauza bat, aurrekoak ez diren beste hizkuntza batzuetan ere irakurtzen duen jende kopurua da, %5k aukeratu du aukera hori. Maiztasun taula honetan erantzun kopuru gehiago daude erantzun duten ikasle gehiago baino hizkuntza bat baino gehiago aukeratzeko aukera zegoelako. 114 pertsonak esan dute gaztelaniaz irakurtzen dutela. Jende gutxiagok, 36 eta 38 pertsonak, ingelesez eta euskaraz irakurtzen dute. 10 pertsonak adierazi dute aurrekoak ez diren hizkuntza batean irakurtzen dutela, eta gutxiago izango zirela pentsatu dugu.


Gehiengoak, %58k, gaztelania aukeratu duenez, gaztelaniaz irakurtzea da moda.

**Hamargarren galdera:** Zenbat denbora ematen dituzu bideo-jokoekin egunero?

Hurrengo galderetarako teknologiaren erabilera aztertzea erabaki dugu irakurketa ohiturarekin alderatzeko. Grafiko honetan genero bakoitzeko jendeak zenbat denbora erabiltzen duen bideo jokoetan aztertu dugu.

| Bideojokoetarako denbora |     |         |       |     |
|--------------------------|-----|---------|-------|-----|
| xi                       | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 0,5                      | 51  | 41,13%  | 25,5  | 51  |
| 1                        | 37  | 29,84%  | 37    | 88  |
| 2                        | 18  | 14,52%  | 36    | 106 |
| 3                        | 8   | 6,45%   | 24    | 114 |
| 4                        | 7   | 5,65%   | 28    | 121 |
| 5                        | 3   | 2,42%   | 15    | 124 |
| N                        | 124 | 100,00% | 1,33  | 1   |

### Bideojokoetarako erabilitako denbora



Grafikoan ikus daitekenez neskek orokorrean ez dituzte bideo-jokoak hainbeste erabiltzen. 37 neskak ez diote ezta ordu bat ematen bideo-jokoei, 18 neskak ordu bakarra, 9 neskak bi ordu, 2 neskek hiru ordu eta beste 2 neskek 4 ordu. Neska batek ere ez du erantzun bost ordu edo gehiago ematen diela bideo-jokoei. Mutilek berriz denbora gehiago ematen diote. 14 mutilak ordu bat baino gutxiago ematen diete bideo-jokoei, 18 mutilak ordu bakarra, 9 mutilak bi ordu, 6 mutilak hiru ordu eta bost mutil lau ordu. Mutilen kasuan badaude 5 orduz edo gehiago egoten direnak, 3hain zuzen ere. Maiztasun taula honetan ordu bat baino gutxiago egoten direnak 0,5 bezala adierazi dugu, eta 5 ordu edo gehiago egon direnak 5 batekin adierazi dugu, bataz


bestekoa eta mediana ateratzeko gai izateko. Bideo-jokoetan ematen duten denboraren batz bestekoa 1,33 ordu dira, eta mediana ordu 1.

## Hamaikagarren galdera: Zenbat denbora ematen dituzu sare sozialekin egunero?

Grafiko honetan genero bakoitzeko jendea sare sozialetan ematen duen denbora aztertzen da.

| Sare-sozialetarako denbora |     |         |       |     |
|----------------------------|-----|---------|-------|-----|
| xi                         | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 0,5                        | 26  | 20,97%  | 13    | 26  |
| 1                          | 29  | 23,39%  | 29    | 55  |
| 2                          | 34  | 27,42%  | 68    | 89  |
| 3                          | 22  | 17,74%  | 66    | 111 |
| 4                          | 6   | 4,84%   | 24    | 117 |
| 5                          | 7   | 5,65%   | 35    | 124 |
| N                          | 124 | 100,00% | 1,90  | 2   |

Sare-sozialetarako erabilitako denbora



Grafikoan ikusi daiteke orokorrean neskek eta mutilek denbora berdina erabiltzen dituztela sare-sozialak orokorrean, ez dagoela alde handirik, baina deigarria da 5 ordu edo gehiago erabiltzen dituztenen artean gehienak mutilak izatea. Bakarrik 3 neskek erantzun dute 5 ordu edo gehiago erabiltzen dituztela sare-sozialak, mutilen kopurua, aldiz, 11 da. Ordu bakarrean erabiltzen dituzten artean badago ere desberdintasuna. 11 dira ordu 1 erabiltzen dutena nesken artean, eta 18 dira mutilak. Maiztasun taulan ordu bat baino gutxiago egoten direnak sare-sozialetan 0,5 batekin adierazi dugu eta bost ordu edo gehiago 5 batekin, horrela batatz bestekoa eta media egitea posiblea da. Sare-sozialetan denbora nahiko igarotzen dute gazteek, ordu bat baino gutxiago egoten direnak %21 dira, baina ordu 1 egoten direnak %23, 2 ordu %27 eta 3 ordu %18. Oso pertsona gutxi egoten dira 4 edo 5 ordu egunero, 6 lau ordu eta 7 bost ordu.


Sare-sozialetan egunero ematen duten denboraren batz bestekoa ia 2 ordu dira (1,90 ordu batz bestekoa eta 2 ordu mediana).

**Hamabigarren galdera:** Zenbat denbora ematen duzu telebista ikusten egunero?

Grafiko honetan ikusten da zenbat denbora erabiltzen duten ikasleek telebista generoaren arabera.

| Telebistarako denbora |     |         |       |     |
|-----------------------|-----|---------|-------|-----|
| xi                    | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 0,5                   | 74  | 59,68%  | 37    | 74  |
| 1                     | 20  | 16,13%  | 20    | 94  |
| 2                     | 19  | 15,32%  | 38    | 113 |
| 3                     | 8   | 6,45%   | 24    | 121 |
| 4                     | 1   | 0,81%   | 4     | 122 |
| 5                     | 2   | 1,61%   | 10    | 124 |
| N                     | 124 | 100,00% | 1,07  | 0,5 |

Telebistarako erabilitako denbora



Argi ikusten da gaur egun, institutuko gazteek, ez dutela telebista ikusteko ohitura handirik. 42 neskak eta 32 mutilak adierazi dute ordu bat baino gutxiago erabiltzen dutela telebista. Datu hauek adierazten dituen maiztasun taula bat sortu dugu. Maiztasun taula honetan 0,5 batekin adierazi dugu ordu bat baino gutxiago erabiltzen dutenak, eta 5 batekin bost edo gehiago. Jende gehienak ez du ezta ordu bakar bat telebista ikusten (%60)k. Oso jende gutxi ikusten du telebista 4 edo 5 ordu, 4 ordu %1k eta 5 ordu %2k.


Telebista ikusteko denboraren bataz bestekoa 1,07 ordu dira, eta mediana ordu bat baino gutxiago, 0,5 batekin adierazita.

**Hamahirugarren galdera:** Zenbat denbora ematen dituzu teknologiarekin aurreko ekintzak ez diren jarduerak egiten?

Azkenik, grafiko honetan genero bakoitzeko jendeak beste jarduera baterako teknologian ematen duen denbora ikusten da.

| Beste jardueratako denbora |     |         |       |     |
|----------------------------|-----|---------|-------|-----|
| xi                         | fi  | hi      | xi*fi | Fi  |
| 0,5                        | 18  | 14,52%  | 9     | 18  |
| 1                          | 18  | 14,52%  | 18    | 36  |
| 2                          | 26  | 20,97%  | 52    | 62  |
| 3                          | 34  | 27,42%  | 102   | 96  |
| 4                          | 5   | 4,03%   | 20    | 101 |
| 5                          | 23  | 18,55%  | 115   | 124 |
| N                          | 124 | 100,00% | 2,55  | 3   |

Teknologiarako erabilitako denbora beste jardueetarako



Grafikoan ikusten da neska kopuru handiago dagoela teknologiar erabilera desberdin bat ematen diena. Dena den, 3 ordu erabiltzen dituztenen artean mutilak dira gehiengoak. Deigarria da ere jaitsiera lau orduz erabiltzen dutenen artean, oso pertsona gutxik erantzun gaituztelako, 3 neska eta 2 mutil. Baina gero beste igoera bat ikusten da 5 orduz edo gehiagoz erantzun dutenen artean, 10 pertsona nesken kasuan eta 8 pertsona mutilen kasuan. Maiztasun taula honetan ere 0,5 batekin adierazi da ordu bat baino gutxiago eta 5 batekin bakarrik bost ordu edo gehiago. Nahiko berdinduta daude kopuru guztiak 3 orduz erabiltzen dutenak eta 4 orduz izan ezik. Pertsona askok esan dute 3 orduz erabiltzen dutela (%27)k eta jende oso gutxik

lau orduz (%4)k. Teknologia beste jarduera baterako erabilitako denboraren batz bestekoa 2,55 ordu dira eta mediana 3 ordu.

## **ONDORIOAK:**

Gure laginaren gehiengoaren adina 13 urte dira eta gehiengoa neskak dira, hau da, lehenengo zikloko neskengandik jaso ditugu erantzun gehienak. Honek esan nahi du aterako ditugun ondorioak adierazgarriagoak izango direla adin tarte eta genero hauetako pertsonentzat besteentzat baino.

- Gazteen gehiengoak (31,45%)k, ez dute ezta liburu oso bat irakurtzen hilabete batean eta beste askok (29,84%)k, liburu bakar bat irakurtzen dute hilabetero. Atera dugun beste ondorio bat hurrengoa da: gehienek (62,10%)k ez dute derrigorrezko irakurketak bakarrik irakurtzen, baizik eta, bere denbora librean, haiek gustukoak dituzten liburuak ere irakurtzen dituzte.
- Generoei dagokionez, gehien irakurtzen diren liburuak abenturazkoak (24,68%) eta zientzia fikziozkoak (16,23%) dira. Gutxiengoak, berriz, mangakoak (4,87%) eta biografiak (4,87%) dira.
- Irakurketen hizkuntzari erreparatuta, argi ikus daitekenez, gaztelania (52,6%) da ohikoena. Euskarak (19,2%)k eta ingelesak (18,2%)k antzeko maiztasuna dute. Beste batzuek, beste hizkuntza batean (5,1%)k irakurtzen dute.
- Gero, aproposa iruditu zaigu ez irakurtzearen edo gutxi irakurtzearen zergatiak zeintzuk diren aztertzea. Analisia aztertuz gero, konturatu gara, jendea ez duela irakurtzen gehien bat ez duelako gustuko (21,74%) eta familiarekin denbora pasatzen duelako (18,36%).
- Ez irakurtzearen beste zergati garrantzitsu bat dago, teknologia. Gazte askok menderatuta daude honengandik. Bestalde, generoaren arabera teknologiaren erabilera ezberdinak daudela igarri daiteke, orokorrean. Bideo-jokoetan eta sare-sozialetan mutilak denbora gehiago aritzen dira. Neskek aldiz, telebista eta beste jarduera batzuetarako erabiltzen dute teknologia.

Aurreko ondorio guztiak kontuan hartuta, ondorioztatu dugu institutuko ikasleek, eta batez ere 1. ziklokoek, ez dutela asko irakurtzen. Gure hipotesia zen honek lotura zeukala derrigorrezko irakurketekin, baina analisi estatistikoa aztertuz esan daiteke teknologia dela irakurtzeko ohiturak murrizten dituen. Gure kideek denbora asko igarotzen dute teknologia erabiltzen

## **HOBKUNTZAK:**

Eskuarki, gure ustez, nahi genuen helburua lortu dugu, hau da, gure hipotesia egiaztatzea. Hala ere, arazo batzuk aurkitu ditugu bidean.

Eduki genuen arazo bat izan zen pertsona batzuek gogoan eman diena erantzun dutela, inkesta benetan serio hartu zuten gazteei gogaitzen. Buruhauste hauek, gauzak apur bat zaildu gintuzten eta pertsona batzuen erantzunak ezabatu behar izan genituen, baliogabeak zirelako eta laginari eragintzen ziotelako.

Inkesta berriz egitekotan, beste galdera bat egingo genuke. Honetan, ikasleei galdetuko genieke ea ikasketetan ematen duten denborak, denbora librean irakurtzeko denborarik kentzen dien.

## **INKESTA:**

**1. Zein da zure adina?**

- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- >18

**2. Zein da zure generoa?**

- Neska
- Mutila
- Beste bat

**3. Zein mailatan zaude?**

- DBH 1
- DBH 2
- DBH 3
- DBH 4
- BATX 1
- BATX 2

**4. Zenbat liburu irakurtzen dituzu hilabetero?**

- 0
- 1
- 2
- 3
- 4
- 5 edo >

**5. Irakurketa derrigorrezkoak bakarrik irakurtzen dituzu? (Eskolak bidalitakoak)**

- Bai
- Ez

**6. Zein liburu generoak irakurtzen dituzu gehien?**

- Abenturazkoak
- Maitasunezkoak
- Akziozkoak
- Mangakoak
- Biografiak
- Beldurrezkoak
- Zientzia fikziozkoak
- Beste generoren batezkoak

**7. Zenbat egun irakurtzen duzu astero?**

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7

**8. Liburu gutxi irakurtzen dituzula erantzun baduzu, zergatik da?**

- Teknologia erabiltzeagatik
- Lagunekin egoteagatik
- Familiarekin egoteagatik
- Kirola edo eskolaz kanpo beste jardueraren bat egiteagatik
- Ez zaidalako gustatzen
- Beste ekintzaren bat egiteagatik

**9. Zein hizuntzatan irakurtzen duzu?**

- Euskaraz
- Gaztelaniaz
- Ingelesez
- Beste batean

**10. Zenbat denbora ematen duzu bideojokoekin egunero? (Orduak)**

- <1
- 1
- 2
- 3
- 4
- 5 edo >

**11. Zenbat denbora ematen duzu sare sozialekin egunero? (Orduak)**

- <1
- 1
- 2
- 3
- 4
- 5 edo >

**12. Zenbat denbora ematen duzu telebistarekin egunero? (Orduak)**

- <1
- 1
- 2
- 3
- 4
- 5 edo >

**13.** Zenbat denbora ematen duzu telebistarekin egunero? (Orduak)

- <1
- 1
- 2
- 3
- 4
- 5 edo >